



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko ekainaren 3a

63. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—“Nafarroako Erdialdea garatzeko partzuergoa, 2018” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Nafarroako Erdialdea garatzeko partzuergoa, 2018” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Nafarroako Erdialdea garatzeko partzuergoa, 2018” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-20/CCO-00014).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

“Nafarroako Erdialdea garatzeko partzuergoa, 2018” fiskalizazio-txostena Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Erdialdea Garatzeko Partzuergoa (4. or.).
 - III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (6. or.).
 - IV. Iritzia (7 or.).
 - IV.1. Auditoretza finantzarioko iritzia (8. or.).
 - IV.2. Legeria betetzeari buruzko iritzia (8. or.).
 - V. Kontu Orokorraren laburpena (9. or.).
 - V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (9. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emaizaren egoera-orri bateratua (9. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (10. or.).
 - V.4. Partzuergoaren egoera-balantzea (10. or.).
 - V.5. Tokiko ekintzako taldearen egoera-balantzea (11. or.).
 - V.6. Partzuergoaren galera-irabazien kontua (11. or.).
 - V.7. Toki ekintzako taldearen galera-irabazien kontua (12. or.).
 - VI. Konklusioak eta gomendioak (13. or.).
 - VI.1. Partzuergoaren aurrekontu orokorra (13. or.).
 - VI.2. Partzuergoaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2018-12-31n (15. or.).
 - VI.3. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (16. or.).
 - VI.4. Partzuergoaren kudeaketa-arlo muntadunak (18. or.).
 - VI.5. Toki ekintzako taldearen kudeaketa-arlo muntadunak (25. or.).
1. eranskina.- Partzuergoaren eta "toki ekintzako taldea" erakunde autonomoaren jardueraprogramak (29. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eta 2019ko ekitaldirako jarduketa-programari jarraituz, Erdialdea garatzeko Partzuergoaren ("partzuergoa", aurreantzean) 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean deskribatzen ditugu partzuergoaren antolaketa, entitateak ematen dituen zerbitzuak eta aplikatzekoa den araudia. Hirugarrenean, fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa adierazten ditugu, eta laugarrenean partzuergoaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorriari eta legeria betetzeari buruzko gure iritzi finantzarioa ematen dugu. Bosgarren atalean Kontu Orokorren laburpen bat erantsi dugu. Seigarrenean, honako gai hauei buruzko konklusio eta gomendioak ematen ditugu: partzuergoaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzea eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak.

Txostenak eranskin bat ere badauka, partzuergoaren jarduera-egitarauetako diru-sarreraren eta gastuen betetzeari buruzkoa.

Lana 2020ko otsailean egin zuten bi auditoretza-teknikarik eta auditore batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Erdialdea garatzeko partzuergoko lehendakariari azaldu zitzaizkion, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Ezarritako epea iraganda, txostenari ez zaio alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak ematen dizkiegu partzuergoko eta haren erakunde autonomoko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. ERDIALDEA GARATZEKO PARTZUERGOA

Partzuergoa entitate publiko bat da, 1996an sortua, xede duena eskualdearen garapen integral eta berdintasunezkoa bultzatzea, eragile ekonomiko eta sozial guztien parte-hartzearen bidez.

Partzuergoa osatzen dutenak interes publiko eta sozialetzat Nafarroaren Erdialdearen garapena bilatzen duten toki entitateak dira. Gaur egun 34 udalerrri¹ biltzen ditu, atxikipen-akordio bat tarteko, eta bere esparrua 38 udalerrri biltzen dituen 1.416 kilometro karratuko lurralde bat da, 39.777 pertsonako biztanleria duena (19.382 emakume eta 20.395 gizon).



¹ Adios, Añorbe, Artaxoa, Artazu, Barasoain, Beire, Berbinzana, Biurrun-Olkotz, Caparroso, Eneritz, Erriberri, Gares, Garinoain, Girgillao, Larraga, Leotz, Mélida, Mendigorria, Miranda Arga, Murillo el Cuende, Murillo el Fruto, Obanos, Oloritz, Orisoain, Pitillas, Puiu, San Martín Unx, Santakara, Tafalla, Tiebas- Muru Artederreta, Tirapu, Untzue, Uxue eta Zarrakastelu.

Partzuergoko gobernu-organoak, haren estatutuen arabera, Batzar Nagusia, Batzorde Exekutiboa eta Lehendakaritza dira. Partzuergoko Idazkaritza dauka elkarturiko udaletakoren bateko idazkari-kontuhartzaileetako batek. 2018an, partzuergoaren lehendakaritza Erriberriko Udalak dauka; idazkaritza, Melidako Udalak; eta diruzaintza, Beireko Udalak.

Partzuergoak 2001ean eratu zuen Nafarroako Erdialdeko Toki Ekintzako Taldea erakunde autonomoa ("toki ekintzako taldea", aurrerantzean), helburu duena Erdialdearen garapena sustatzea, administrazio ezberdinengandiko laguntzak bideratzea eta kudeatzea barne, bai eta ekimen komunitarioak berak ere.

Toki ekintzako taldea osatzen dute partzuergokoak diren toki entitateek eta Nafarroaren Erdialdean munta berezikoak diren irabazi asmorik gabeko elkarteek, erakundeek, fundazioek eta enpresa pribatuek.

Toki ekintzako taldearen gobernu-organoak, haren estatutuen arabera, Batzar Nagusia, Batzorde Exekutiboa, Lehendakaritza, Diruzaintza eta Idazkaritza dira. Erakunde autonomoaren lehendakaritza eta idazkaritza partzuergoaren lehendakariak eta idazkariak daukate; hots, Erriberriko eta Melidako udalek, 2018an. Diruzain-kargua Batzorde Exekutiboko kide batek egikaritzen du, udalez bestelako entitate batetik heldua; 2018an, E.H.N.E.-Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunaren ordezkariak egikaritzen du kargua.

2018ko abenduaren 31n, partzuergoak eta toki ekintzako taldeak ondoko datu ekonomiko eta langileria-arlokoak dauzkate:

Entitatea	Betebehar aitortuak	Eskubide aitortuak	Langileak 2018/12/31
Partzuergoa	439.763	454.046	5
Toki ekintzako taldea	465.645	530.708	5
- Bateratzearen doitzeak ⁽¹⁾	-82.658	-82.658	
Bateratua, guztira	822.750	902.096	10

(1) Ganbera honek VI.1 atalean aldatutako zenbatekoa

2018an, partzuergoak 48.785 euroko ekarpena egin zion toki ekintzako taldeari; eta toki ekintzako taldeak partzuergoari, 33.873 eurokoa.

Bere estatutuetan jasotako helburuak betetze aldera, partzuergoak honako lan-arlo hauetan aurrera eraman du bere jarduna 2018. urtean:

Lan-arloak	Partzuergoa	Toki ekintzako taldea
Ekintzaitzari buruzko aholkularitza		X
Turismoa eta merkataritza	X	
Berdintasuna	X	X
Landa garapena.		X
Jasangarritasuna:	X	X

Jarduera horietako diru-sarreraren eta gastuen betetzeari buruzkoa txosten honen 1. eranskinean atxiki da.

Partzuergoari aplikatzekoa zaion arau-esparrua honako hauek osatzen dute, funtsean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasu-nei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.; Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, partzuergoaren estatutuak, toki ekintzako taldearen estatutuak, eta araudi sektorial indarduna.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Erdialdea garatzeko Partzuergoaren 2018ko ekitaldiko finantza-fiskalizazioa eta legeria bete-tezeari buruzko fiskalizazioa egin dira, honako honi buruzko iritzia emateko:

- Ea Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2018ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoari buruz ere, aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraituz.

- Ea partzuergoak eta haren menpeko enteak ekitaldian zehar egindako jarduketak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2018ko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arau-ekin.

Aurreko iritzia emateaz gainera, lanak barne hartu du 2018rako finkatutako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea berrikustea.

Fiskalizazioaren norainokoa da Erdialdea garatzeko Partzuergoaren 2018ko Kontu Orokorra, honakoek osatua:

- Partzuergoaren beraren eta bere erakunde autonomoaren kontua:

a) Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.

b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea: egoera-balantzea eta galera-irabazien kontua.

c) Eranskinak: diruzaintzaren egoera-orria eta etorkizuneko gastu eta diru-sarreraren konpromisoen egoera-orria.

- Kontu Orokorren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2018ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Legeria betetzeari dagokionez, norainokoa txosten honen VI. atalean aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei dagokie.

IV. IRITZIA

Erdialdea garatzeko Partzuergoaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitate egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

PARTZUERGOAREN ERANTZUKIZUNA

Partzuergoko lehendakaria da Kontu Orokorra egin eta aurkezteko erantzukizuna duena. Halako moduz egin behar du non kontu horrek leialki irudikatuko baititu partzuergoaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoaren arau-esparruarekin bat. Erantzukizun horrek barne hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialetatik libre dagoen Kontu Orokorra prestatu eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren taxuketa, ezarpena eta mantentzea.

Batzar Nagusiak 2019ko ekainaren 10ean onetsi zuen Kontu Orokorra.

Partzuergoak bermatu behar du Kontu Orokorrean jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoak diren arauekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri behar ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruz ISSAI-ES 200 delakoan ezarritakoen arabera, bai eta betetzearen fiskalizazioari buruzkoa den ISSAI-ES 400 delakoan ezarritakoen arabera ere; halaber, kanpo kontroleko organoen fiskalizazio-gida praktikoa erabili ditugu. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea Kontu Orokorrean akats materialik ez egoteaz, eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz.

Fiskalizazio bat egiteak eskatzen du prozedura batzuk aplikatzea auditoretza-ebidentzia bat lortze aldera kontu orokorretan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak ekitaldi fiskalizatuan zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, eta horrek barne hartzen du arriskubalorazio bat egitea, bai kontu orokorrek iruzurraren nahiz errakuntzaren ondoriozko oker materialak edukitzeaz, bai arau-hauste pisuzkoak egoteaz. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak aintzat hartzen du zer barne kontrol den muntadun entitateak kontu orokorrak egiteko eta legeria betetzen dela bermatzeko, xedetzat harturik inguruabarren arabera egoki diren auditoria-prozedurak taxutzea, eta ez, ordea, entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia ematea.

Auditoria batek barne biltzen du, era berean, ebaluazioa egitea aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaz eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaz, bai eta kontu orokorren aurkezpenaz ere, kontu orokorren multzo osoa aintzat hartuta.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako funtsa eskaintzen du finantzei eta betetzeari buruzko gure fiskalizazio-iritzia oinarritzeko.

IV.1. AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

a) Partzuergoaren eta haren erakunde autonomoaren ondasun-inbentarioaren eguneratzea eginkizun dago; horregatik, ezinezkoa izan da ibilgetuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den egiaztatzea. Saldo hori, 2018ko abenduaren 31n, 414.051 eurokoa zen.

b) Partzuergoan kreditu eskuragarria gainditu egin da hiru lotura-multzotan, 64.868 euroan, kasuko aurrekontu-aldaketak izapidetu gabe.

c) Toki ekintzako taldean kreditu eskuragarria gainditu egin da lau lotura-multzotan, 57.050 euroan, kasuko aurrekontu-aldaketak izapidetu gabe.

AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZI SALBUESPENDUNA.

Gure iritziz, "Salbuespendun iritziaren oinarria" atalean deskribaturikoagatik eta norainokoaz azaldutako mugak izan ditzakeen eraginengatik ez bada, partzuergoaren Kontu Orokorrak irudi leiala erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, partzuergoaren ondareari eta 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere; betiere, informazio finantzario publikoaz aplikatzekoa den arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraituz.

IV.2. LEGERIA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, partzuergoaren 2018ko ekitaldiko jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta finantzen egoera-orrietan jasotako informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

V. KONTU OROKORRAREN LABURPENEA

Ondoren partzuergoaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorraren egoera-orri garrantzitsuenak erakusten ditugu.

V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA**Gastuak, kapituluz kapitulu**

Deskribapena	Hasierako kredituak	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebehargarbiak	Ordainutakoaren betetzearen ehunekoa		Ordainutakoaren ehunekoa, Ordaintzeko	
1. Langile-gastuak	362.573	362.573	370.591	102	363.193	98	7.398
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	289.897	289.897	239.320	83	236.127	99	3.193
4. Transferentzia arruntak ⁽¹⁾	11.119	11.119	57.437	517	14.272	25	43.165
6. Inbertsio errealak	90.488	90.488	-	-	-	-	-
7. Kapital-transferentziak	227.208	227.208	155.402	68	155.402	100	0
Gastuak, guztira	981.285	981.285	822.750	84	768.994	93	53.756

(1) Aitortutako betebehargarbien zenbatekoa Ganbera honek VI.1 atalean 12.506 euroan aldatua

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubide garbiak	Kobrantsen betetzearen ehunekoa		Kobratuaren ehunekoa	Kobratzeko
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	-	-	451	-	451	100	0
4. Transferentzia arruntak ⁽²⁾	754.057	754.057	660.433	88	494.097	75	166.336
5. Ondarezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	20	20	14.841	74.203	14.841	100	0
7. Kapital-transferentziak	227.208	227.208	226.371	100	226.371	100	0
Diru-sarrerak, guztira	981.285	981.285	902.096	92	735.760	82	166.336

(2) Aitortutako eskubide garbien zenbatekoa Ganbera honek VI.1 atalean 12.506 euroan aldatua

V.2. AURREKONTU-EMAITZAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2017ko ekitaldia*	2018ko ekitaldia
+ Aitorturiko eskubide garbiak	720.692	902.096
- Aitorturiko betebehargarbiak	768.788	822.750
Aurrekontu-emaiza	-48.096	79.346
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboa	7.698	72.115
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboa	71.065	6.833
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	-	-
Merkataritza-eragiketen emaitza	-	-
Aurrekontu-emaiza doituia	15.271	14.064

*Auditatu gabeko ekitaldia

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2017ko ekitaldia*	2018ko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	265.871	276.363
(+) Diru-sarrerren aurrekontua Aurtengo ekitaldia	140.585	166.336
(+) Diru-sarrerren aurrekontua Itxitako ekitaldiak	34.716	-
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	91.286	110.027
(-) Ordainketen itzulketak	-	-
(-) Bilketa zaileko eskubideak	716	-
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-	-
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	323.192	223.491
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	121.281	53.756
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	34.068	-
(+) Diru-sarrerren itzulketak	-	-
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	-	-
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	167.844	169.735
(+) Diruzaintzako funts likidoak	374.534	342.151
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	71.065	-
Diruzaintzako gerakina, guztira	388.278	395.023
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	-	-
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	14.840	29.680
Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarakoa	373.438	365.343

*Auditatu gabeko ekitaldia

V.4. PARTZUERGOAREN EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa			Pasiboa		
Deskribapena	2017*	2018	Deskribapena	2017*	2018
Ibilgetua	380.980	380.980	Funts berekiak	764.979	799.099
1 Ibilgetu materiala	133.102	133.102	1 Ondarea eta erreserbak	740.399	764.815
2 Ibilgetu ez-materiala	81.251	81.251	2 Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	166.626	166.626	3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	24.580	14.283
4 Ondasun arruntak	0	0	Epe luzeko zorrak	0	0
5 Ibilgetu finantzarioa	0	0	Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	0	0
Zirkulatzailea	449.565	473.809	Epe laburreko zorrak	65.566	75.690
7 Itxitako aurrekontuetako zordunak eta aurrekontuz kanpokoak	122.900	109.707	5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	55.554	54.881
8 Aurrekontuko zordunak	39.359	87.120	6 Aurrekontuko hartzekodunak	10.012	20.809
9 Kontu finantzarioak	287.306	276.981			
Aktiboa, guztira	830.545	854.788	Pasiboa, guztira	830.545	854.788

*Auditatu gabeko ekitaldia

V.5. TOKIKO EKINTZAKO TALDEAREN EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa			Pasiboa		
Deskribapena	2017*	2018	Deskribapena	2017*	2018
Ibilgetua	33.071	33.071	Funts berekiak	-33.001	29.974
1 Ibilgetu materiala	33.071	33.071	1 Ondarea eta erreserbak	169.346	193.371
2 Ibilgetu ez-materiala	0	0	2 Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	0	3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-202.346	-163.397
4 Ondasun arruntak	0	0	Epe luzeko zorrak	0	0
5 Ibilgetu finantzarioa	0	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	0	0
Zirkulatuzailea	191.556	178.578	Epe laburreko zorrak	257.626	181.675
7 Zordunak, itxitako aurrekontuetakoak eta aurrekontuz kanpokoak	3.102	320	5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	146.357	114.855
8 Aurrekontuko zordunak	101.226	113.088	6 Aurrekontuko hartzekodunak	111.269	66.820
9 Kontu finantzarioak	87.228	65.170			
Aktiboa, guztira	224.627	211.649	Pasiboa, guztira	224.627	211.649

*Auditatu gabeko ekitaldia

V.6. PARTZUERGOAREN GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Emaitza ekonomikoaren egoera-orria

Zor	2017*	2018	Hartzeko	2017*	2018
61 Langile-gastuak	155.960	177.888	70 Salmentak	69	405
62 Gastu finantzarioak	0	0	71 Jabetza- eta enpresa-errenta	14.840	14.840
64 Kanpoko lan, hornikuntza eta zerbitzuak	151.311	196.223	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	0	0
67 Transferentzia arruntak	63.682	65.651	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	0	0
68 Kapital-transferentziak	0	0	76 Transferentzia arruntak	380.624	438.801
69 Kalkulatutako gastuak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0	0
			78 Bestelako diru-sarrerak	0	0
D80 Ekitaldiko emaitza arrunt negatiboa	0	0	H80 Ekitaldiako emaitza arrunta	24.580	14.283
D82 Inbertsioen salmentarengatiko galerak eta bestelakoak	0	0	H82 Inbertsioen salmentarengatiko irabaziak	0	0
D83 Aktibo finantzarioen salmentarengatiko galerak	0	0	H83 Aktibo finantzarioen salmentako irabaziak	0	0
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	0	0	H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	0	0
D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa	0	0	H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	24.580	14.283

*Auditatu gabeko ekitaldia

V.7. TOKI EKINTZAKO TALDEAREN GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Emitza ekonomikoaren egoera-orria

Zor	2017*	2018	Hartzeko	2017*	2018
61 Langile-gastuak	184.097	192.702	70 Salmentak	0	46
62 Gastu finantzarioak	197	0	71 Jabetza- eta enpresa-errenta	1	1
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	46.597	43.096	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	0	0
67 Transferentzia arruntak	41.468	74.444	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	0	0
68 Kapital-transferentziak	202.827	155.402	76 Transferentzia arruntak	272.839	304.291
69 Kalkulatutako gastuak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0	0
			78 Bestelako diru-sarrerak	0	0
D80 Ekitaldiko emitza arrunt negatiboa	202.347	161.308	H80 Ekitaldiko emitza arrunta	0	0
D82 Inbertsioen salmentarengatiko galerak eta bestelakoak	0	0	H82 Inbertsioen salmentarengatiko irabaziak	0	0
D83 Aktibo finantzarioen salmentarengatiko galerak	0	0	H83 Aktibo finantzarioen salmentaren irabaziak	0	0
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	0	2.185	H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	1	96
D89 Ekitaldiko emitza ekonomiko negatiboa	202.346	163.397	H89 Ekitaldiko emitza ekonomiko positiboa	0	0

*Auditatu gabeko ekitaldia

VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txostenaren hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarriren bat ere.

Halaber, informazio xehea gehitu da fiskalizazio-txosteneko iritziko salbuespenei buruz. Hala-ber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez partzuergoaren eta haren erakunde autonomoaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. PARTZUERGOAREN AURREKONTU OROKORRA

Partzuergoaren eta haren erakunde autonomoaren 2018rako hasierako aurrekontu bateratuak 981.285 euroko diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurreikuspenak jasotzen zituen.

Behin betiko aurreikuspenak ere 981.285 eurokoak izan ziren, ez baita aurrekontu-aldaketarik egin.

AURREKONTU-LIKIDAZIOA

2018an, gastuek 822.750 euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 84koa eta ordaintze-maila ehuneko 93koa izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2018an 902.096 euroko eskubideak aitortu ziren, eta betetze- eta kobratze-mailak ehuneko 92 eta 82koak izan ziren, hurrenez hurren.

Adierazi behar dugu ezen bateratze-doikuntzetan ez dela aintzat hartu partzuergoaren eta toki ekintzako taldearen arteko 12.506 euroko transferentzia bat; horregatik, partzuergoaren gastu eta diru-sarrera bateratuak zenbateko horretan doitu aurkeztu dira.

Ondoko taulan ageri dira partzuergoaren eta haren erakunde autonomoaren gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa
Langileak	45	Transferentzia arruntak	73
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	29	Kapital-transferentziak	25
Kapital-transferentziak	19	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	2
Transferentzia arruntak	7		
	100		100

Gastuen kapituluetan, langileria-gastuek aitorturiko gastu osoaren ehuneko 45 egiten dute, ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuek ehuneko 29, eta transferentziek, ehuneko 26. Diru-sarreretan, transferentzia arruntek eta kapitalekoek guztizkoaren ehuneko 73 eta 25 egiten dute, hurrenez hurren.

Jarraian erakusten dugu 2018 eta 2017ko ekitaldietako aurrekontu-likidazio bateratuarekin zerikusia duten adierazle batzuen konparazioa:

Adierazlea	2017*	2018	Aldea (%) 2018/2017
Aitortutako eskubideak, guztira	720.692	902.096	25
Aitortutako betebeharrak, guztira	768.788	822.750	7
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	588.931	675.726	15
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	563.674	667.349	18
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	131.762	226.371	72
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	204.918	155.402	-24
Saldo ez-finantzarioa	-48.096	79.346	265
Aurrekontu-emaitza doituia	15.271	14.064	-8
Dirulaguntzekiko mendekotasuna (%)	97,93	98,33	0,4

*Auditatu gabeko ekitaldia

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2018an, diru-sarrerak 181.404 euroan handitu ziren, eta horrek esan nahi du aurreko ekitaldiarekiko ehuneko 25eko igoera izan dela, diru-sarrera arrunten igoeraren ondorioz —86.795 euro igo dira, ehuneko 15— eta kapitaleko diru-sarreraren igoeraren ondorioz —ehuneko 72ko igoera, 94.609 euro—.

- 2018an, gastuek 53.962 euroan egin zuten gora, eta horrek esan nahi du aurreko ekitaldiarekiko igoera ehuneko zazpikoa izan dela. Funtzionamendu-gastuek ehuneko 18 egin zuten gora, 103.675 euro, eta kapital-gastuek ehuneko 24ko beherakada izan zuten, 49.516 euro.

- Aurrekontu-emaitza doituia 14.064 eurokoa da, eta 1.208 euro txikitu da; hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta ehuneko zortziko jaitsiera izan da.

- Bi ekitaldietan, partzuergoak dirulaguntzekiko duen mendekotasuna diru-sarrera guztien ehuneko 98 ingurukoa da.

VI.2. PARTZUERGOAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIO BATERATUA 2018-12-31N

Ondoren 2018ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2017*	2018	Aldea (%) 2018/2017
Aurrezki gordina	25.257	8.377	-67
Finantza-zama	197	-	-100
Aurrezki garbia	25.060	8.377	-67
Finantza-zamaren adierazlea	-	-	-
Aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoa	4	1	-72
Zorpetze-ahalmena (%)	4	1	-72
Zorra, guztira	-	-	-
Biztanle bakoitzeko zorra	-	-	-
Zorpetze-maila (zor bizia/diru-sarrera arruntak)	-	-	-
Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarakoa	373.438	365.343	-2
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubideak)	-	-	-
Kobrantza zalantzagarriaren indizea (Kobrantza zalantzagarriko zordunen saldoa/zordunak)*100	-	-	-

* Auditatu gabeko ekitaldia

2018an aurrezki gordin eta garbia 8.377 eurokoa izan da; aurreko ekitaldikoa baino ehuneko 67 txikiagoa. Partzuergoak ez dauka zor hitzarturik.

Gastu orokorrak finantzatzeko diruzaintzako gerakina 365.343 eurokoa izan zen, aurreko urtekoa baino ehuneko bi gutxiagokoa; horrek adierazten du badagoela likidezirik hurrengo ekitaldietan aurrekontu-aldaketak finantzatzeko.

Laburbilduz, partzuergoaren finantza-egoera ona da, aurrezki gordin eta garbiaren eta diruzaintzako gerakinaren adierazleak positiboak direlako, nahiz eta adierazle horiek okerrera egin duten aurreko ekitaldikoekin alderatuta. Bestalde, ohartarazi behar dugu partzuergoak dirulaguntzekiko duen mendekotasun handiaz, bere diru-sarrera guztien ehuneko 98 egiten baitu.

VI.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, partzuergoak tokiko administrazio publikotzat jotzen ditu honako ente hauek: partzuergoa bera eta toki ekintzako taldea erakunde autonomoa.

2018ko abenduaren 28an, Estatuko Administrazio Kontu-hartzailletza Orokorrak administrazio publikoen sektorearen barrenean sailkatu zuen partzuergoa, haren baliabideak nagusiki helburuak jasotako ekarpen eta dirulaguntzetatik. Halaber, kontabilitate nazionalaren ondorioetarako, jotzen du ezen partzuergoa Erriberriko Udalaren menpeko unitate instituzional publiko bat dela, udala baita Batzar Nagusian boto kopururik handiena duena.

2018an, administrazio publikotzat jotako entitateek, partzuergoak eta toki ekintzako taldeak, honako datu hauek zeuzkaten:

- Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak
- a) 46.484 euroko finantzaketa-ahalmena sortu dute.

Finantzaketa-ahalmena

	Zenbatekoa, 2018
Diru-sarrera ez finantzarioak	902.097
Gastu ez-finantzarioak	822.750
Saldo ez-finantzarioa	79.347
SEC dela-eta egindako doikuntzak	
Beste administrazio publiko batzuegandik jasotako transferentziak	-32.863
Finantzaketa-ahalmena	46.484

Partzuergoak eginiko kalkuluan ez zen aintzat hartu beste administrazio publiko batzuegandik jasotako transferentziengatik doikuntzak, zeinak doikuntza horren zenbatekoan txikiagotzen baitu partzuergoaren finantzaketa-ahalmena.

b) 2018ko ekitaldiko gastu konputagarria 54.388 euro txikiagoa da gehieneko gastu-muga baino; beraz, bete egiten da gastu-araua, ez baita gainditzen 2018rako baimendutako alde-tasa, ehuneko 2,4koa.

Gastu-araua

	2018ko zenbatekoa
2017ko gastu konputagarri bateratua*	218.582
% 2,4ko igoera	5.246
2018rako aurreikusitako gastu-muga	223.828
2018ko gastu konputagarri bateratua	169.440
2018ko gastu-desbideratzea	-54.388

*Auditatu gabeko ekitaldia

Gure berrikuspenean 2018ko gastu konputagarri bateratua doitu dugu aintzat harturik funts finalistekin finantzaturiko gastuan izandako desbideraketak; izan ere, partzuergoak ez zuen hala-bera aintzat hartu gastu-arauaren kalkuluan. Doikuntza horren ondorioz, 2018an gastuaren desbideraketaren zenbatekoa txikiagoa da partzuergoak kalkulatu baino, zeina 107.824 eurokoa baitzen.

- Finantza-iraunkortasunaren printzipioa
 - a) Zor publikoaren iraunkortasunari dagokionez, helburu hori bete egiten da, ez baitago zor hartzaturik.
 - b) Partzuergoak ez du informaziorik aurkezten hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruz.

Gure gomendioak:

- Finantzatze-ahalmenaren eta gastu-arauaren kalkulua egin bedi aplikatzekoa den araudiak horretarako ezartzen dituen doikuntza guztiak aintzat hartuz.
- Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea hiru hilean behin kalkulatu eta argitaratzea.

VI.4. PARTZUERGOAREN KUDEAKETA-ARLO MUNTADUNAK

VI.4.1. ALDERDI OROKORRAK

2018ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2018ko otsailaren 8an onetsi zuen partzuergoaren Batzar Nagusiak. Aurrekontua ez da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

2018rako aurrekontuen espedienteak ez ditu biltzen aurrekontu hori betetzeko oinarriak, ez eta kontu-hartzailetzaren txosten ekonomiko-finantzarioa ere.

Kontu Orokorrari buruz egindako berrikuspenetik, honako hau adierazi nahi dugu:

- Ez dute kontu-hartzailetzako kontrol egokirik egiten estatuetan horretarako zehaztuta dauden pertsonak.

Erakunde autonomoko langile den kontabilitate-teknikariak betetzen ditu kontu-hartzailetzako eginkizunak, hala partzuergoaren gain, nola toki ekintzako taldearen gain. Partzuergoko estatutuen arabera, diruzain-kargua Batzorde Exekutiboko kide batek egikaritzen du, eta haren eginkizunen artean daude kontabilitatearen zuzendaritza eta izaera ekonomikoko eragiketa guztien kontu-hartzailetzak. Toki ekintzako taldean, Batzorde Exekutiboko kide batek, udalaz bestelako entitate batetik heldua, eginkizun berekin egikaritzen du diruzain-kargua.

- Partzuergoaren estatutuak ez daude egokituta Administrazio publikoen araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen xedapenetara, aplikatzekoak bazaizkio ere. Xedapen horien arabera, partzuergoak zein administrazio publikori atxikiak dauden, administrazio horren aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubidera daude lotuta eta, beraz, atxikipen-administrazioaren aurrekontuan sartuta edo horiekin batera egonen dira, administrazio horri aplikatzekoa zaion araudiak aurreikusten dituen zertzeladekin.

Partzuergoak, bere estatuetan, ez du zehaztu zein administrazio publikori atxikirik egonen den aurrekontu-ekitaldi bakoitzean. 2018an, eta irizpidetzat izanik partzuergoa atxikita egonen dela bere gobernu-organo gorenean boto gehien duen administrazio publikoari, Erriberriko Udalarari legoke atxikita, bere Batzar Nagusian boto gehien duen udala delako.

Atxikipen horren ondorioz, partzuergoa Erriberriko Udalaren aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubidearen pean legoke.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontu-espedientea indarreko legediak ezarritako epean onetsi eta argitaratzea.*
- *Aurrekontu-espedientean sartzea indarreko araudiak behartzen dituen dokumentu guztiak.*
- *Egin beharrekoak diren aurrekontu-aldaketak izapidetzea, kredituen lotura juridikoko poltsak ez gainditzeko.*
- *Partzuergoaren eta toki ekintzako taldearen inbentarioak eguneratzea eta haien datuak ibilgetukoekin bat etorraraztea.*
- *Partzuergoaren estatutuak egokitzea aplikatzekoak zaizkion Administrazio publikoen araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen xedapenetara.*
- *Bere estatuetan zehaztea zer udali egonen den aurrekontu-ekitaldi bakoitzean atxikia, bai eta bere aurrekontuen, kontabilitatearen, kontrol ekonomiko-finantzarioaren eta ondarearen araubidea ere.*

VI.4.2 LANGILE-GASTUAK

Atal honetan batera aztertzen ditugu partzuergoaren eta toki ekintzako taldearen langile-gastuak, zein eta gastu horien kudeaketa, kontabilizazioa eta ordaintzea pertsona berek eta prozedura berari jarraituz egiten baitute.

Partzuergoaren langile-gastuek 177.888 euro egin zuten 2018an, ehuneko 104ko betetze-mailarekin. Toki ekintzako taldearenek 192.702 euro egin zuten, eta haien betetze-maila ehuneko 100ekoa izan da. Ekitaldiko betebeharrak aitortu bateratu guztien ehuneko 45 egiten dute.

Hona haien xehakatzeari eta 2017koekin konparazioa:

Partzuergoa	Aitortutako betebeharrak, 2017	Aitortutako betebeharrak garbiak, 2018	Aldaketa (%) 2018/2017
Lan-kontratudun langileak	118.123	134.919	14
Enplegu-emaitzaren kargurako kuota, prestazioak eta gizarte gastuak	37.838	42.969	14
Partzuergoko langile-gastuak, guztira	155.961	177.888	14
Toki ekintzako taldea			
Lan-kontratudun langileak	137.303	145.329	6
Enplegu-emaitzaren kargurako kuota, prestazioak eta gizarte gastuak	46.794	47.373	1
Toki ekintzako taldeko langile-gastuak, guztira	184.097	192.702	5

* Auditatu gabeko ekitaldia

2017koekin alderatuta, partzuergoko langile-gastuek ehuneko 14ko gorakada izan dute, turismo-arloan laguntzeko teknikari bat gehitzearen ondorioz, batez ere. Bestetik, toki ekintzako taldeko langile-gastuek ehuneko bost egin zuten gora.

PLANTILLA ORGANIKOA

Batzar Nagusiak 2018ko otsailaren 8an onetsi zituen partzuergoaren eta toki ekintzako taldearen plantilla organikoak, aurrekontu-espeditarekin batera.

Partzuergoaren eta toki ekintzako taldearen plantilla organikoen arabera, lanpostuak, haien araubide juridikoa, maila, egoera eta lanaldia honako hauek dira:

Lanpostua	Zenbat lanpostu	Araubide juridikoa	Maila	Egoera	Lanaldia
Koordinatzailea	1	Lan-kontratupekoa	B	Mugagabea	Osoa
Teknikariak	2	Lan-kontratupekoa	B	Aldi baterakoa	Osoa
Administrari-ofiziala	1	Lan-kontratupekoa	C	Aldi baterakoa	Osoa
Administrari-ofiziala	1	Lan-kontratupekoa	C	Lanpostu hutsa	Partziala (% 70)
Partzuergoaren guztizkoa	5				
Teknikariak	4	Lan-kontratupekoa	B	Aldi baterakoa	Osoa
Teknikariak	1	Lan-kontratupekoa	B	Aldi baterakoa	Partziala (% 80)
Toki ekintzako taldearen guztizkoa	5				

2018ko azaroaren 23an, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak toki ekintzako taldea erakunde autonomoari igorritako eginbide batek behartzen du mugagabe bihurtzea erakunde horretako lau langileren aldi baterako kontratuak, haien gehieneko iraunaldia amaitzeagatik.

Partzuergoko lehendakariaren azaroaren 26ko 20/2018 ebazpenaren bidez, mugagabe bihurtu ziren partzuergoko hiru langileren eta toki ekintzako taldeko bosten kontratuak. Haien kontratuek gehieneko

iraunaldia gaindituta zeukaten. 2018ko abenduaren 31n, zortzi langileak kontratatu mugagabe gisa agertzen dira.

2018ko abenduaren 31n, hamar langilek dihardute lanean partzuergoan eta toki ekintzako taldean, partzuergoko lanpostu hutsa aldi baterako lan-kontratupeko langile batekin bete baitzen 2018ko apirilean, hautapen-prozedura baten bitartez.

Langileak.	Partzuergoa	Toki ekintzako taldea
Lan-kontratu mugagabedun ez-finkoak	4	5
Aldi baterako lan-kontratadunak	1	
Guztira	5	5

Partzuergoko langileen araubidea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (NFKA, aurrerantzean) bere lan-kontratadun langileentzat duen hitzarmen kolektiboa da.

2018an ez zen lan-eskaintza publikorik egin, eta ez zen langile finkoak kontratatzeke deialdirik ere argitaratu. Partzuergoko lehendakariaren 14/2018 ebazpenaren bidez, langile bat kontratatu zen turismo-ofizial lanposturako, sei hilabeterako obra-kontratu batekin, C mailarekin eta lanaldiaren % 70ekin.

Kanpoko aholkularitza batek egiten ditu nominak. Aurreko hilabetearekiko aldaketarik ez badago, kontabilitate teknikariak kontabilizatzen ditu nominak, eta administrariak egiten du ordainketa; aldaketarik egonez gero, kontabilitate-teknikariak berrikusten ditu. Zehaztu beharrean gaude ezen kontabilitate-teknikaria toki ekintzako taldeak kontraturiko langile bat dela, bai partzuergoaren bai toki ekintzako taldearen kontabilitate-eragiketak egiten dituen, eta administraria partzuergoko langilea dela, zeinak, era berean, bi entitateentzako eginkizunak egiten baititu, hala nola nomina ordaintzea.

Egindako berrikuspenetik nabarmendu beharra daukagu ezen, oro har, ordaindutako lansariak bat datozela plantilla organikoaren arabera betetzen dituzten lanpostuekin eta kasuan kasuko inguruabar administratibo eta familiarrekin, eta araudian ezarritakoaren arabera direla. Hala eta guztiz ere, honako hau ohartarazi behar dugu:

- Plantilla organikoa ez da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen.
- Plantilla organikoak ez ditu jasotzen langileek egun kobratzen dituzten lanpostu-osagarriak.
- Partzuergoko hiru langileren kontratuak ez dute zehazten zer maila dagokien. Toki ekintzako taldean, kasu batean izan ezik, kontratuak ez dute adierazten langileei dagokien maila.

Gure gomendioak:

- Lanpostuen maila eta ordainsari osagarriak behar bezala zehazten dituen plantilla organikoa onetsi eta argitaratzea.*
- Lan-eskaintza publikoa onestea eta plantilla organikoan dauden lanpostu hutsetarako deialdia egitea, araudi indardunean ezarritakoari jarraituz.*
- Lan-arloko kontratuak formalizatzea langileen ordainsarrietan eragina duten klausula guztiak sartuz.*

VI.4.3. GASTUAK, PARTZUERGOAREN ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Partzuergoaren ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastu arruntek 196.223 euro egin zuten; aurreikusitako kredituaren ehuneko 117, hain zuzen. Ekitaldian sorrarazitako gastuen guztizkoaren ehuneko 45 egiten dute.

Gastu horiek ehuneko 30 handiagoak izan ziren aurreko ekitaldikoak baino, eta horren arrazoia izan zen programetan, jarduera-sarean eta Ardoaren Ibilbidean eginiko gastuen gorakada.

Honako gastu-partida hauek berrikusi ditugu:

Kontzeptua	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebehargarriak, 2018
Jarduera-sarea	121.000	151.237
Ardoaren Ibilbidea	10.982	16.549
Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren berdintasun-proiektuak	12.972	10.819

Jarduera-sarea eta Ardoaren Ibilbidea partzuergoaren turismo-alorraren proiektuak dira:

a) Jarduera-sarea programa bat da, eta horren bitartez, kide diren udalek hitzarmen bat sinatzen dute partzuergoarekin, azken horrek turismo-jaialdiak antola diezazkien: besteak beste, Erriberriko Erdi Aroko Azoka, Tafallako otsaileko azokak, edo ardo gorriaren eguna San Martin Unxen. Partzuergoa jarduerak kontratatzeaz eta ordaintzeaz arduratzen da; programa horren finantzaketa NFKAren dirulaguntzen, udalen ekarpenen eta, batzuetan, kasuko jaia egiten den udaletako entitate pribatu zenbaiten ekarpenen bitartezkoa da. Dirulaguntza horiek txosten honetako VI.4.5 apartatuan aztertzen dira.

b) Ardoaren Ibilbidea 2005ean hasitako proiektu bat da, orduan lortu baitzuten Nafarroako Ardoaren Ibilbidea osatzen zuten enpresek eta entitateek Espainiako "Rutas del Vino" k emandako kalitate-ziurtagiria. Geroago, Ardoaren Ibilbidea Foru Komunitatearen lurralde osora hedatu zen, harekin bat egin zutenean nafar ardandegi eta turismo-establezimendu zenbaitek, eta NFKAekin haren finantzaketarako hitzarmen bat sinatu zenean.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren berdintasun-proiektuak² berdintasun-alorrekoak dira, eta gehienbat jasotzen dituzte berdintasuna eta genero-indarkeria jorrazteko tailerretan eta prestakuntza-saioetan eginiko gastuak. Proiektu horiek finantzatzeko, partzuergoak NFKArengandik 11.948 euroko dirulaguntza bat jasotzen du Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bidez.

Aurreko gastu-partidetan azterturiko faktura-laginetik azpimarratzen duguna da ezen, oro har, fakturak zuzen daudela kontabilizatuta, kontabilitate-teknikariak sinatuta eta partzuergoako lehendakariak onetsita. Hala eta guztiz ere, honako hau aipatu behar dugu:

- Jarduera-sarearentzako eta Ardoaren Ibilbidearentzako partidetan, aitorturiko betebeharrak handiagoak dira behin betiko kredituak baino. Bi partida horiek daude kreditu eskuragarria gaindituta daukaten lotura-poltsetan.
- Fakturek kontu-hartzaile zereginetan diharduen kontabilitate-teknikariak sinatuta daude; jandantik adierazi dugunez, langile hori toki ekintzako taldearen plantillan dago.
- Berdintasun-alorra partzuergoak eta toki ekintzako taldeak partekaturiko jarduera da; gastu orokorrak eta diru-sarrerak partzuergoari aplikatzen zaizkio, eta berdintasun-teknikariaren lan-gile-gastuak toki ekintzako taldeari, beraren plantilla organikokoa izaki.

Gure gomendioak:

²Nafarroako Berdintasunerako Institutua (NABI)

- Egin beharrekoak diren aurrekontu-aldaketak izapidetzea, kredituen lotura juridikoko poltsak ez gairiditze.
- Ezar bedi prozedura bat zeinaren arabera partzuergoaren fakturak entitate horretako langileek kontrolatu eta sinatuko baitituzte.
- Kasua bada, defini bitez bi entitateek partekaturiko lan-arlo eta jarduerak, haietako bakoi-tzari esleitzearren zeini bere gastu eta diru-sarrerak.

VI.4.4 PARTZUERGOAREN TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK

Partzuergoaren transferentzia arruntetako gastuak 65.651 eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 15 egiten dute; haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 143koa izan zen. Kapitulu honetako gastuek ehuneko hiruko igoera izan zuten aurreko ekitaldikoaren aldean.

Honako gastu-partida hauek berrikusi dira:

Kontzeptua	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak, 2018
Toki ekintzako taldearen funtzionamendurako ekarpena	40.852	48.785
Jarduera-sarrerako mecnaren ekarpenaren itzulketa	4.000	6.555
Ardoaren Ibilbiderako ekarpena, hitzarmenetik	0	10.311

Egin dugun analisitik honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

a) Partzuergoak toki ekintzako taldeari eginiko ekarpena 40.852 eurokoa izan behar zela jaso zen aurrekontuan, beharrezkoa baitzen erakunde autonomoaren diru-sarrera eta gastuak 2018an orekatzeko. Partzuergoko kide diren udalek diru-sarreraren partidaren bidez egiten dute kopuru horren ekarpena (udalen kuota, funtzionamendua), VI.4.5 apartatuan aztertuta.

Partidaren betetzea kreditu eskuragarriak baino 7.933 euro handiagoa da, eta ez da gastua betetzeko behar adinako kreditua hornitzeko beharrezkoa den aurrekontu-aldaketa onetsi.

b) Jarduera-sarean entitate pribatuen ekarpenak daudenean jaietarako, ekarpen horiek udalei itzultzen zaizkie entitate horiengandik jasotako zenbatekoarekin. Azterturiko partidak itzulketa horiengatikoa gastua jasotzen du (zenbateko berarekin kontabilizatuta ageri da transferentziengatikoa diru-sarreraren partidaren, zeina VI.4.5 apartatuan aztertzen baita).

c) Ardoaren Ibilbidea NFKAk eta Ardoaren Ibilbidea osatzen duten entitate eta enpresek finantzaturiko proiektu bat da. Urte amaieran, programa baloratzen da; ekarpenak gastuak baino handiagoak badira, aldea itzultzen zaie kasuko entitateei. Azterturiko partidak itzulketa horiengatikoa gastua jasotzen du.

Gomendatzen dugu behar diren aurrekontu-aldaketak onestea, aurreikusitako gastua baimentzeko modua emanen duen kreditua zuzkitze aldera.

VI.4.5 PARTZUERGOAREN TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO DIRU-SARRERAK

Partzuergoaren transferentzia arruntengatiko diru-sarrerak 438.801 eurokoak izan ziren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 97 egiten dute; haien betetze-maila ehuneko 114koa izan da. Kapituluako eskubide aitortuen ehuneko 80 kobratu dira.

Honako hau da haien betetzea:

Transferentzien bidezko diru-sarrerak	Aitorturiko eskubide garbiak, 2017*	Aitortutako eskubide garbiak, 2018	Aldea (%) 2018/2017
41 Toki ekintzako taldea erakunde autonomotik	15.759	15.368	-2
45 Nafarroako Foru Komunitatetik	130.450	130.538	0
46 Toki entitateetatik	222.149	262.113	18
47 Enpresa pribatuetatik	6.265	6.555	5
48 Irabazi asmorik gabeko erakundeetatik	6.000	24.227	304
Transferentzia arruntak, guztira	380.624	438.801	15

* Auditatu gabeko ekitaldia

2018an, transferentzia arruntek ehuneko 15eko gorakada izan zuten aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Gorakada hori, gehienbat, turismo-hitzarmenetan udalen ekarpenek izandako gehikuntzaren ondoriozkoa da.

Diru-sareren honako partida hauek berrikusi ditugu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
TET PTGE (LEADER) hitzarmena	15.368
Turismo-dirulaguntza, jarduera-sarea	83.679
Ekarpen pribatua, jarduera-sarea	6.555
Udalen hitzarmenak, jarduera-sarea	105.158
Udalen ekarpena Funtzionamendu-gastuak	86.361
Udalen kuota, partzuergoa	40.852
Elkarteen ekarpena, Ardoaren libilbiderako	6.000
Entitateen ekarpena, Ardoaren libilbiderako	18.227

Egindako berrikuspenarekin, egiaztatu dugu ezen, oro har, jasotako dirulaguntzak aplikatze-koa den araudiari jarraikiz kudeatu, kontabilizatu eta kobratu direla. Halere, honako hau adierazten dugu:

a) TET PTGE (LEADER) hitzarmena VI.5.3. apartatuan aztertzen da.

b) Partzuergoaren eta udalen artean jarduera-sarearen programetarako sinaturiko hitzarmenek barne hartzen dute jaiaren aurrekontua gehi gastu orokorretarako ehuneko zazpi.

Jarduerak finantzatzeko, partzuergoak aurrerakinak eskatzen dizkie udalei, eta urte-amaieran, udal bakoitzari dagokion ekarpena kalkulatu du, jai bakoitzaren gastu eta diru-sarrekin, aurreraturiko kopuruak deskontaturik.

Geroago, partzuergoak udal onuradunei itzuli egiten dizkie kasuan kasuko herriko jaietan laguntza eman duten entitate pribatuen ekarpenak.

c) Udalek partzuergoari funtzionamendu-gastuetarako egiten dizkioten ekarpenak partzuergoaren aurrekontu-espeditentean onesten dira. Entitate bakoitzari dagokion zenbatekoa lortzen da boto-kopurua biderkatuz KPI-Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera urtero eguneratzen den prezio/boto batekin. 2018an, prezio/boto hori 80,77 eurokoa da. Boto-kopuru guztizkoa honakoek osatzen dute:

- Zortzi boto, partzuergoko kide izateagatik.
- Biztanle-kopuruaren arabera botoak, biztanle-tarteka.
- Egoitza-botoak: Erriberrin dago partzuergoaren egoitza, eta badaude koegoitzak diren bete herri batzuk ere, eta haietara lekualdatzen dira partzuergoko eragileak, arreta pertsonalizatua emateko.

2018an, ekarpen horien guztizko zenbatekoa, 127.213 eurokoa, bi partidatan kontabilizatu zen: 86.361 euro partzuergoaren funtzionamendu-gastuetarako eta 40.852 euro toki ekintzako taldearentzat. Bi partida horien arteko banaketa egiten da partzuergoak bere erakunde autonomoari haren urteko defizita estaltzeko egiten dion ekarpenaren arabera.

VI.4.6 PARTZUERGOAREN ONDARE BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Ondare bidezko diru-sarrerak 14.840 eurokoak izan ziren, eta diru-sarrera guztien ehuneko hiru egiten dute.

Berrikuspena egin da diru-sarreraren honako partidaren gainean, zeinak kapitulu honetako diru-sarrera guztiak jasotzen baititu.

Itxitako ekitaldietako aurrekontuak-Diru-sarrerak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako esku-bide garbiak
Su-kalteak izandako oihanaren aprobetxamendua	0	14.840

2016ko abenduan hitzarmen bat sinatu zuten partzuergoak eta Nafarroako Erdialdean 2016ko abuztuan izandako sutearen eraginpeko udalerriek. Hitzarmen horretan, partzuergoa baimendua izan zen ukituriko pinudien aprobetxamendua kudeatzeko.

2017ko abuztuan 26.500 euroko zenbatekoan (BEZik gabe) esleitu zen aprobetxamenduaren kudeaketa, enkante publikoan eta bi urterako. 2018an aitorturiko eskubideak kontratuaren amaierako ehuneko 50i dagozkio. 2019an, aprobetxamendu horren bidez lorturiko diru-sarrerak itzuli egin zaizkie hitzarturiko udalei.

Eginiko berrikuspenean egiaztatu dugu zuzena izan dela diru-sarreraren eta gastuen kontabilizazio-prozedura.

VI.4.7 AURREKONTUKOAK EZ DIREN ZORDUNAK

Aurrekontukoak ez diren zordunen goiburuean 109.707 euro zeuden 2018ko abenduaren 31n. Gehienbat dagozkie partzuergoak bere erakunde autonomoari helarazitako aurrerakin eta maileguei, zeinek 107.979 euro egiten baitituzte. Toki ekintzako taldeari likidezia-problema dituen eginiko funts-transferentziei dagozkie.

2018ko ekitaldian, partzuergoko diruzainak baimena eman zuen toki ekintzako taldeari 30.000 euroko diruzaintza-mailegu bat emateko, interesik eta komisiorik gabe. Maileguaren itzulketa egiten zen egoera finantzarioak horretarako modua ematen zuenean. 2018an, toki ekintzako taldeak bi konpentsazio-ordainketa egin ditu, 8.785 euro egiten dutenak.

Gomendatzen dugu Batzorde Exekutiboak onetsi egin ditzala partzuergoak erakunde autonomo duen toki ekintzako taldeari emandako aurrerakinak eta maileguak.

VI.5. TOKI EKINTZAKO TALDEAREN KUDEAKETA-ARLO MUNTADUNAK

VI.5.1 GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Toki ekintzako taldeak 2018an ondasun arruntetan eta zerbitzuetan izandako gastuek 43.096 euro egin zituzten, kreditu aurrekusiaren ehuneko 35; exekuzio apal horren zergati nagusia da ez zela gauzatu Artaxoako "Encuentros con la historia" proiektua, eta betetze apala izan zutela "Suspertze sozioekonomikorako plana prestatzea" partidak (ehuneko 51) eta "Jasangarritasun-proiektuko jarduketak" partidak (ehuneko 12).

Kapitulu honek egiten du ekitaldian sorturiko gastu guztien ehuneko bederatzia. Aurreko ekitaldikoak baino ehuneko zortzi txikiagoak izan ziren.

Honako gastu-partida hauek berrikusi ditugu:

Kontzeptua	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak, 2018
Suspertze sozioekonomikorako plana prestatzea	35.302	18.150
PTGE (Leader) ebaluazio partekatua prestatzea	0	7.000
Jasangarritasun proiektuko jarduketak	35.045	4.134
Dietak eta joan-etorriak	5.231	3.239

Gure azterketatik ateratzen dugun konklusioa da ezen, oro har, berrikusitako aurrekontu-partidetako gastuak justifikatuta, onetsita eta behar bezala kontabilizatuta eta ordainduta daudela.

Suspertze sozioekonomikorako plana prestatzeko laguntza-kontratuaren lizitazioa eta esleipena, bai eta haren exekuzioa ere, kontratu-legediari jarraikiz izapidetu dira.

VI.5.2 GASTUAK ETA DIRU-SARRERAK TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIK ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIENGATIK

Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital- transferentziengatiko gastuak

Toki ekintzako taldearen transferentziagatiko gastuek 229.847 euro egin zituzten, eta gastu guztien ehuneko 49 egiten dute.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, gastu horiek ehuneko seiko beherakada izan dute; gehienbat, partaidetzako toki garapenerako estrategiengatiko –PTGE (Leader), aurrerantzean– dirulaguntzen beherakadarengatik

Honako gastu-partida hauek berrikusi dira:

Kontzeptua	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak, 2018
RAF PTGE (LEADER) hitzarmena	3.119	3.119
Dirulaguntza-banaketa, Eskualde-suspertzerako A plana	0	12.506
Partzuegoarentzako ekarpena, Ardoaren llibidarearen kuota	6.000	6.000
PTGE (Leader) lankidetzak-hitzarmena	12.687	15.368
Eskualde-suspertzerako B planeko dirulaguntzen banaketa	0	36.252
	21.806	73.245
Diru-laguntzak, Feader-NG PTGE (Leader)	175.067	139.386
Diru-laguntzak, Feader-NG PTGE (Leader)	52.141	16.016
	227.208	155.402

TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIENGATIKO DIRU-SARRERAK

2018an, toki ekintzako taldearen transferentziengatiko diru-sarrerek 530.662 euro egin zituzten, eta erakunde autonomoaren diru-sarreraren ehuneko 100 egiten dute.

2018an, transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak ehuneko 12 eta 72 igo ziren, hurrenez hurren, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Gehikuntza horiek, nagusiki, NFKAK eskualde-suspertzerako planetarako emandako dirulaguntzen eta PTGE (Leader) dirulaguntzen gorakadaren ondoriozkoak dira.

Honako partida hauek aztertu dira:

Kontzeptua	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako esku-bide garbiak, 2018
NG PTGE (LEADER) dirulaguntza	103.953	107.100
Suspertze-planetarako dirulaguntzak	135.302	79.210
Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntza, ADL kontratazioarako	56.600	56.600
Partzuergoaren ekarpena, funtzionamendua	40.852	48.785
Elkarteen ekarpena, Ardoaren libilbidearen kuota	6.000	6.000
Beste entitate batzuen ekarpena, kuota	3.131	3.131
	345.838	300.826
FEADER-NG PTGE (LEADER) dirulaguntza	227.208	226.371
	227.208	226.371

Egindako berrikuspenarekin, egiaztatu dugu ezen, oro har, jasotako transferentziak eta emandako dirulaguntzak aplikatzekoa den araudiari jarraikiz kudeatu, kontabilizatu, kobratu eta pagatu direla. Halere, honako hau adierazten dugu:

a) Partaidetzazko Toki Garapenerako Estrategiak. 2016ko abuztuaren 23an sinatu zen Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuaren eta toki ekintzako taldearen arteko lankidetzak-hitzarmena, bere PTGE (Leader) abiarazteko Nafarroako Landa Garapenerako 2014-2020 Programaren barruan, Europar Batasunaren laguntzekin finantzatua.

Laguntza horiek finantzatzen dituzte entitatearen beraren funtzionamendu- eta animazio-gastuak eta entitatearen deialdi berekien bitartez kudeatzen diren proiektuak.

- Funtzionamendu- eta animazio-gastuei dagokienez, 2018an aitortu dira 3.094 euroko diru-sarrerak, zeinak 2019ko ekitaldiari baitagozkie.

- PTGE (Leader) deialdien oinarriek exigitzen dute funts publikoak kudeatzeko gaitasuna duen arduradun administratibo-finantzario bat identifikatzea. 2016an Melidako Udalak hartu zuten programa horretarako toki ekintzako taldearen arduradun administratibo eta finantzarioaren eskumenak. Eginkizun horiek aipatu udaleko idazkariak beteko ditu. Hitzarturiko zenbatekoa urtean 3.119 eurokoa da. Kopuru hori toki ekintzako taldeak ordaintzen dio Melidako Udalari.

- Partzuergoak eta toki ekintzako taldeak hitzarmen bat sinatu zuten 2016an, zeinaren arabera partzuergoak laguntza teknikoko eskumenak hartzen baititu PTGE (Leader)en barrenean eta, zehazki, horren kudeatzailetza eta administrazio-eginkizunak. 2018an, partzuergoak bere erakunde autonomoari likidatu zizkion partzuergoko koordinatzailearen langile-gastuen ehuneko 20 eta administrari ofizialaren ehuneko 15, proiektuari eskainitako jardunarengatik. Guztira, 15.368 euro.

- Toki ekintzako taldeak PTGE (Leader)en araberrako laguntzetarako deialdia egin zuen 2016an, 2017 eta 2018ko ekitaldietarako. 2018an, deialdiko gastua 155.402 eurokoa izan zen; diru-sarreretan, 2018ko laguntzak jasotzen dira, Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Ad-

ministrazioko Departamentuak onetsiak PTGE (Leader)en abiarazpenerako laguntzen esparruan, bai eta 2017koak ere, 2018an ordainduak.

PTGE (Leader)engatiko programako gastu eta diru-sarrerak txosten honen 1. eranskinean daude jasota.

b) Suspertze sozio-ekonomikorako plana. Politika Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak dirulaguntzak ematen ditu eskualde-suspertzerako planak prestatu eta abiarazteko. Partzuergoak, toki ekintzako taldeak eta Nafarroako Erdialdeko Enpresarien Elkarteak (NEEE) lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute Nafarroako Erdialdeko suspertze sozioekonomikorako plana exekutatzeke eta dirulaguntza-deialdira elkarrekin aurkezteke.

Toki ekintzako taldeak eskatzen ditu laguntzak eta banatzen du jasotako dirulaguntza, 79.210 eurokoa, hitzarturiko hiru entitateen artean, haietako bakoitzak deialdiko bi jardute-ildoetan jasandako gastuaren arabera:

Entitatea	A ildoak	B ildoak	Guztizkoa
Partzuergoak	0	12.506	12.506
NEEE	9.953	26.299	36.252
Toki ekintzako taldeak	18.150 ⁽¹⁾	12.302	30.452
Eskualde-suspertzerako planeko dirulaguntzaren guztizkoa	28.103	51.107	79.210

(1) Suspertze sozio-ekonomikorako plana.

c) Erdialdeko Turismo Elkarteak partaide da Ardoaren Ibilbidearen proiektuan, eta bere 6.000 euroko kuota ordaintzen dio toki ekintzako taldeari. Ardoaren Ibilbidea partzuergoak kudeaturiko proiektu bat denez, kopuru hori helarazten zaio. Toki ekintzako taldeak bitartekari dihardu eragiketa horretan, turismo elkarteak erakunde autonomoaren parte baita.

VI.5.3 AMAIERAKO KONKLUSIOA ETA GOMENDIOA

- Toki ekintzako taldeak 655.814 euroko aurrekontua dauka urtean –partzuergoaren aurrekontua baino ehuneko 70 handiagoa–, eta bost pertsonako plantilla –partzuergoaren plantilla bezalakoa–, bere helburuak betetzeko beharrezkoak diren jarduketak aurrera eramateko.

- Partzuergoak eta toki ekintzako taldeak egiten dituzten jarduerak arlo hauetakoak dira: ekin-tzailtzarako aholkularitza, turismoa eta merkataritza, berdintasuna, landa-garapena eta jasanga-rritasuna. Jarduerak partekatzen dituzte bien artean, hala nola berdintasuna edo jasangarritasuna.

- Partzuergoko eta toki ekintzako taldeko langileek eginkizunak betetzen dituzte zein den ere kontratatu dituen erakundea.

Gomendatzen dugu aztertu eta balioestea ea komeni den "toki ekintzako taldea" erakunde autonomoa desegin eta haren zerbitzu, eginkizun eta eskumenak partzuergoaren egituran integratzea, halatan lortzearren kudeaketa eraginkorrago eta efizienteago bat eta sektore publiko arrazionalagoa eta sinpleagoa.

Txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M^a Carmen Azcona Díez de Ulzurrun andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA.- PARTZUERGOAREN ETA "TOKI EKINTZAKO TALDEA" ERAKUNDE AUTONO-MOAREN JARDUERA-PROGRAMAK**INBERTSIO PROGRAMAK, GUZTIRA**

PROGRAMA	DIRU-SARRERA	GASTUA	ALDEA
LEADER	390.071	276.857	57.614
TURISMOA / JARDUERA-SAREA	212.628	242.244	-29.616
SUSPERTZE PLANA	79.210	78.929	281
ARDOAREN IBILBIDEA	53.138	53.563	-424
BERDINTASUNA	11.948	18.852	-6.904
BESTERIK	155.100	152.305	2.795
DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK, GUZTIRA	902.096	822.750	23.746

PTGE (LEADER) programa

DIRU-SARRERAK					GASTUAK			
KAPITULUA	Partzuergoa	EEAAK	GUZTIRA	%	Partzuergoa	EEAAK	GUZTIRA	%
1	0	0	0	0	15.367	83.438	98.805	36
2	0	0	0	0	0	18.331	18.331	7
4	0	107.100	107.100	42	0	4.319	4.319	1
7	0	226.371	226.371	58	0	155.402	155.402	56
GUZTIRA	0	334.471	334.471	100	15.367	261.490	276.857	100

TURISMOA / JARDUERA-SAREA programa

DIRU-SARRERAK					GASTUAK			
KAPITULUA	Partzuergoa	EEAAK	GUZTIRA	%	Partzuergoa	EEAAK	GUZTIRA	%
1	0	0	0	0	82.464	0	82.464	34
2	0	0	0	0	159.780	0	159.780	66
4	212.628	0	212.628	100	0	0	0	0
GUZTIRA	212.628	0	212.628	100	242.244	0	242.244	100

SUSPERTZE PLANA programa

DIRU-SARRERAK						GASTUAK			
KAPITULUA	Partzuergoa	EEAAK	GUZTIRA	MODULUA		Partzuergoa	EEAAK	GUZTIRA	%
1	0	0	0	0		11.633	10.532	22.165	28
2	0	0	0	0		1.036	19.475	20.512	26
4	0	79.210	79.210	100		0	36.252	36.252	46
GUZTIRA	0	79.210	79.210	100		12.669	66.259	78.929	100

ARDOAREN IBILBIDEA programa

KAPITULUA	DIRU-SARRERAK				GASTUAK			
	Partzuer- goa	EEAAk	GUZTIRA	%	Partzuer- goa	EEAAk	GUZTIRA	%
1	0	0	0		23.816	0	23.816	45
2	0	0	0		29.747	0	29.747	55
4	53.138	0	53.138	100	0	0	0	
GUZTIRA	53.138	0	53.138	100	53.563	0	53.563	100

BERDINTASUNA programa

KAPITULUA	DIRU-SARRERAK				GASTUAK			
	Partzuer- goa	EEAAk	GUZ- TIRA	%	Partzuer- goa	EEAAk	GUZTIRA	%
1	0	0	0		0	7.638	7.638	41
2	0	0	0		11.214	0	11.214	59
4	11.948	0	11.948	100	0	0	0	
GUZTIRA	11.948	0	11.948	100	11.214	7.638	18.852	100

